CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Goi-mailako joskintzako tekniken ikastaroen egitaraua

2027

Aurkezpena

Cristóbal Balenciagarekin lotutako ondarearen kontserbazioa, ikerketa eta hedapena Cristóbal Balenciaga Museoaren misioaren funtsezko ardatzetako bat da. Testuinguru horretan, duela zenbait urtetatik hona, Museoak askotariko bideak aztertu ditu joskinaren obrarekin lotutako ezagutza eta prozedura teknikoak dokumentatu, zaindu eta transmititzeko. Horretarako, prestakuntza-programa bat sustatzen du, zeinaren xedea Cristóbal Balenciagaren lanbide-ezagutzaren alderdi immaterialari balioa eman eta, aldi berean, ondare hori modako profesionalen belaunaldi berriei transmititzen laguntzea baita.

Programak bi motatako prestakuntzak uztartzen ditu: batetik, prestakuntza intentsibo nagusiki praktikoak, Museoaren instalazioetan eginak eta parte-hartzaileak Balenciagaren teknika- eta sormen-unibertsoan murgiltzeko pentsatuak; eta, bestetik, onlineko prestakuntzako modalitateak, zeinak ezagutza horiek eskuragarriago bihurtzen baitituzte, tresna digitalen bidez.

Gaikako ibilbideak

Prestakuntza-eskaintza hiru gaikako ibilbidetan dago egituratuta: jantzigintza, joskintza eta brodatua, zenbait espezializazio-ikastaro eta -proposamenetan banatuta. Programak, oro har, zenbait sakontze-maila eta ia 250 orduko dedikazioa aurreikusten ditu, eta aukera ematen du goi-mailako joskintzarekin lotutako askotariko gaitasun teknikoak landu eta garatzeko.

Jantzigintza	Hastapen-maila, erdi-maila eta aurreratua
	Eguneko jantziak, batez ere jantzi-jokoak, eskuz egiteko tekniken multzoa. Arreta berezia jarriko da artilezko ehunen tratamenduan eta papar-hegalak, lepoak, botoi-zuloak, poltsikoak eta mahukak egiteko erabiltzen diren eragiketetan.
Joskintza (flou)	Hastapen-maila, erdi-maila eta aurreratua
	Eguneko jantziak, koktelekoak eta ezkontza-jantziak egiteko tekniken multzoa. Arreta berezia jarriko da zetaren, tafetaren eta parpailaren lanketan; kortsearen eta bestelako barneko egituren eraikuntzan; eta baliabide tekniko eta apaingarrien aplikazioan (tolesak, organdiak, guatinak eta askotariko itxiturak).
Brodatua	Hastapen-maila eta erdi-maila
	Goi-mailako joskintzako eskuzko brodatu-teknika espezializatuen inguruko prestakuntza: Lunéville metodoa. Aukera ematen du ehunen gainean apaingarriak jartzeko eta materialak aplikatzeko zenbait prozedura aztertzeko.

Ikastaro eta deialdien egutegia

Jantzigintza

	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea	Prezioa
1. Hastapen-maila	Irailak 10 Irailak 12	Ekainak 01 Ekainak 15	20 ordu	Presentziala	290€
2A. Erdi-maila	Urtarrilak 11 Urtarrilak 31	Aza 16 2026 Aza 30 2026	25 ordu	Online	340€
2B. Erdi-maila	Otsailak 01 Otsailak 21	Aza 16 2026 Aza 30 2026	25 ordu	Online	340€
3. Maila aurreratua	Ekainak 28 Uztailak 02	Apirilak 05 Apirilak 23	35 ordu	Presentziala	475€

Joskintza

	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea	Prezioa
1. Hastapen-maila	Urriak 01 Urriak 03	Ekainak 16 Ekainak 30	20 ordu	Presentziala	290€
2. Erdi-maila	Martxoak 01 Martxoak 21	Urtarrilak15 Urtarrilak 31	25 ordu	Online	340€
3. Maila aurreratua	Uztailak 05 Uztailak 09	Apirilak 12 Apirilak 30	35 ordu	Presentziala	475€

Brodatua

	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea	Prezioa
1. Hastapen-maila	Maiatzak 06 Maiatzak 09	Otsailak 01 Otsailak 15	28 ordu	Presentziala	415€
2. Erdi-maila	Maiatzak 11 Maiatzak 14	Otsailak 01 Otsailak 15	28 ordu	Presentziala	415€

Museoak beretzat gordetzen du eskainitako ikastaroen saioak egunez aldatzeko eskubidea, baita, ezinbestekoa izanez gero, programa bera osorik edo zati batean bertan behera uztekoa ere.

Informazio gehigarria

Deialdien antolaketa eta ikasleak onartzeko irizpideak

Ikastaro bakoitzak bere deialdia izango du, zeinaren argitalpen-data egutegian zehaztuta baitago. Eskabidea formalizatzeko, beharrezkoa da deialdi bakoitzaren baldintza zehatzak, ezarritako epeak eta betekizunak kontsultatzea.

Oro har, ikastaro guztietan, beharrezkoa da gaiaren inguruko aurretiko ezagutza eta esperientzia izatea, brodatu ikastaroko hastapen-mailan izan ezik, ez baita aurretiko ezagutzarik behar.

Plaza bat lortzeko, izangaiek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

— Curriculum vitaea: egindako ikasketak eta espezialitatearekin lotutako prestakuntza- eta lanbide-esperientzia zehaztuko dira.
— Motibazio-gutun laburra: ikastaroan parte hartzeko interesa eta izangaiaren prestakuntza-helburuak azalduko dira.

Plazak esleitzeko orduan, kontuan hartuko dira aurkeztutako dokumentazioa eta izangaien profilen balorazioa, hau da, zer prestakuntza eta esperientzia duten eta ikastaro bakoitzaren helburu eta edukietara egokitzen diren.

Neurrira egindako prestakuntza-ibilbidea

Jantzigintzako eta joskintzako lerroetako ikastaroak prestakuntza-proposamen osagarritzat hartzen dira; hau da, ez da nahitaez ordena jakin batean egin beharreko ibilbide sekuentziala. Beraz, ez da beharrezkoa hastapenetako ikastaroa aurretik egitea maila ertain edo aurreratuko ikastaroetan parte-hartzeko, baldin eta ikasleak deialdi bakoitzak eskatzen dituen ezagutzak eta aurretiko esperientzia baditu.

Ikastaroen arteko alde nagusia orduen dedikazioa da, 20 eta 35 ordu artekoak baitira; ondorioz, prestakuntzan jorratu nahi den proiektuaren konplexutasun-maila eta garapen teknikoa ere desberdina izango da.

Egitura malgua denez, pertsona bakoitzak aukera izango du bere prestakuntza-ibilbidea bere neurrira diseinatu eta antolatzeko, bere ibilbidera, aurretiko ezagutzetara, interesetara eta espezializazio-helburuetara ondoen egokitzen diren proposamenak hautatu baititzake. Hala, ikastaro bakoitzak aukera ematen du teknika eta prozedura jakin batzuetan sakontzeko eta pixkanaka norberak bere prestakuntza-ibilbidea osatzeko.

Hizkuntzak	Arau orokor gisa, programako ikastaroak gaztelaniaz ematen dira. Hala ere, berezitasun batzuk daude prestakuntza-modalitatearen eta espezialitatearen arabera. Online ikastaroen kasuan, prestakuntza ingelesez ere egiteko aukera ematen da, beste herrialde batzuetako pertsonen parte-hartzea erraztuz. Horretarako, lanaren xedeari buruzko ikus-entzunezko materialak bi hizkuntzetan daude eskuragarri, eta, gainera, online tutoretza-taldeetako bat ingelesez gaitzen da. Jantzigintzako eta joskintzako ikastaro presentzialak ere irekita daude gaztelaniaz ez dakiten parte-hartzaileentzat, irakasleak azalpenak eta laguntza teknikoa eman baititzake ingelesez saioetan. Brodatze-ikastaroak, bestalde, gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzen dira, eta parte-hartzaileek prestakuntza jarraitu eta azalpenak bi hizkuntzetako edozeinetan jaso ahal izango dituzte.
Irakasleak	Javier Martín museoko ohiko kolaboratzailea arituko da joskintza-ikastaro hauetan irakasle. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991n, Goi Mailako Moda Diseinatzaile gisa, eta bere prestakuntza-urteetan Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen, EISA Madrid etxeko langileak eta Felisa Irigoyen tailerreko buru izandakoaren lehen jostunak. Haiengandik ikasi zituen Cristóbal Balenciagaren joskintzako eta bolumenak eraikitzeko teknika espezifikoak, eta ezagutza horiek bere lanbide- eta irakaskuntza-ibilbidea markatu dute. Elisabeth Gasbarre Parisko École Lesagen ikasia da, eta Cécile Henri Atelier lantegian aritua da, Dior, Chanel eta Azzaro moda-etxeen bildumetarako sorkuntzak egiten. Gainera, hainbat herrialdetako diseinatzaile eta moda-enpresekin kolaboratu du: Hermès, Chafor, Alexis Mabille, Impasse 13, Didit Hediprasetyo eta Francesca Fossati. Irakasle gisa, eskolak ematen ditu bai Lyongo bere jostundegian, Frantzian, bai mundu osoko moda-zentroetan.

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@Cristóbalbalenciagamuseoa.com
www.Cristóbalbalenciagamuseoa.com

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE CULTURA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GIPUZKOA
Getaria Herria itsaso